

LIBURUTEGIAK

2017. urtea





Lankide eta adiskideok:

Eskuartearen duzue Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikaren Liburutegi Zerbitzuak urtero argitaratzen duen aldizkaria. Bertan 2005. urteaz geroztik Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen Sareko datuak eta albisteak bildu ditugu.

Formatu elektronikoan helduko zaizue eta ahalegin berezia egin dugu irakurketa digitalak eskatzen dituen baldintzetara egokitzeko, bere erabilera errazteko asmoz. Era berean, aldizkariaren itxura formala aldatu dugu, izenburu eta diseinu berria prestatu ditugularik. Edukiari dagokionez, liburutegien parte hartzea sustatu nahi izan dugu zuen albisteak jakitera emateko; horrela, burutzen dituzuen jarduerak Sareko beste profesionalekin partekatzeak aukera izango duzue.

Aurkezpen labor honetan hainbat berri eman nahi ditugu. Alde batetik, bilaketa bakar baten bidez Sareko katalogo ezberdinetan (liburu fisikoak, Liburuklik eta eLiburutegia) informazioa aurkitzeko aukera emango duen "metabilatzailea" lantzen ari garela eta 2018ko udaberrirako zuon eta erabiltzaileen eskuetan egotea espero dugula jakinarazten dizuegu.

Aurrera darraigu, bestetik, Sareko liburutegien bidez herritarrei zuzendutako zerbitzu digitalak sendotzearen apustuarekin. Ildo horretan, hurrengo urtean "Euskadiko Liburutegi Digital Nazionala" sortzeko proiektuari ekingo diogu. Horren bidez, euskal bibliografia modu agerikoan aurkeztu nahi dugu, herritarrek era errazean kontsulta dezaten. Egitasmoa gauzatzen denean formatu digitalean eskainiko ditugu, bai jabetza publikoko lanak, baita azken urteetan plazaratutakoak ere, egile eskubideengatik argialetxeekin negoziatu behar direnak. Inolako zalantzarik gabe egitasmo interesgarria eta konplexua da era berean. Hala ere, hasi gara bere bideragarritasuna eta garapena lantzen.

Esparru horri lotuta, objektu digitalen kontserbazioa bermatu eta ziurtatuko duen biltegi digitala sortu dugu. Egun, etorkizunean iraun beharko lukeen informazioa kontserbatzen duten hainbat erakunde daude -Filmoteka, Eresbil, Xenpelar, etab.-, Kultura Sailburuordetzaren hurbilekoak direnak, eta adierazpide ezberdinetako euskal kultura babesteko hainbat proiektutan parte hartzen ari direnak. Aipatu erakundeek digitalizatutako informazio guztia disko gogorretan gordetzen dute. Euskarri horren hauskortasuna eta zaharkitzea kontuan izanik, eta dokumentazio eta informazioa eskuratzeko berme arloan nazioarteko erakundeen gomendioak jarraituz (IFLA edo UNESCO), Jaurlaritzaren informatika zerbitzuan (EJIEn) biltegiratze zerbitzu bat sortu dugu, euskal ondare kulturalaren babes digitala bermatzeko.

Azkenik, zuotako askok dakienez, Kultura Ondarearen Zuzendaritza aldaketa gertatu zen urrian. Imanol Agotek zuzendari postua utzi zuen, nahiz eta sailean lanean jarraitu aholkulari moduan. Liburutegi arloa izango da, hain zuzen, bere zeregin nagusia hurrengo hilabetetan. Nik neuk, Mikel Aizpuruk, Euskal Herriko Unibertsitate irakasle eta ikertzaileak hartu dut bere lekua eta, esan beharrik ez dago, zuon laguntza eskatu eta eskertuko dut gure gizartearentzat hain garrantzitsuak diren liburutegiek ahalik eta ondoen funtziona dezaten. Sareko liburutegi zerbitzua lankidetzaren ereduaren fruitua da eta udal liburutegiek eta liburuzainek egindako lana bere ezinbesteko zutarria. Ahal dugun neurrian, lankidetzaren hori areagotzen saiatuko gara hurrengo urteetan. Ez adiorik.

Mikel Aizpuru Murua
Kultura Ondarearen zuzendaria




eLiburutegia 2017 estatistikak

 Maileguak hileko



eLiburutegia 2017 estatistikak


2017 Maileguak urteka



eLiburutegia 2017 estatistikak



Maileguak hileko ehunekoetan 1000 biztanleko



eLiburutegia 2017 estatistikak



Maileguak 1.000 biztanleko Erkidegoka

Andalucía 5,9

Aragón 11

Asturias 8,4

Canarias 6,2

Cantabria 5,6

Castilla y León 7,4

Castilla - La Mancha 8,2

Cataluña 21,8

Ceuta 2,9

Comunidad Valenciana 4,5

Euskadi 20,7

Extremadura 8,9

Galicia 4,8

Illes Balears 5,3

La Rioja 23,5

Madrid 22,9

Melilla 2,3

Murcia 6,3

Navarra 10,2

eLiburutegia 2017 estatistikak





Maileguak Autonomia erkidegoko (1000 biztanleko)

 Biztanleko

 Deskargak





Andalucía

 8.379.820
 49.076




Aragón

 1.308.750
 14.382





Asturias

 1.034.960
 8.728




Canarias

 2.108.121
 13.080




Cantabria

 580.295
 3.243





Castilla y León

 2.425.801
 17.854





Castilla - La Mancha

 2.031.479
 16.732




Cataluña

 7.555.830
 164.754





Ceuta

 84.959
 245





Comunidad Valenciana

 4.941.509
 22.004





Euskadi

 2.194.158
 45.456






Extremadura

 1.079.920
 9.578




Galicia

 2.708.339
 12.928





Illes Balears

 1.115.999
 5.934





La Rioja

 315.381
 7.418




Madrid

 6.507.184
 148.870





Melilla

 86.120
 201





Murcia

 1.470.273
 9.302




Navarra

 643.234
 6.559

eLiburutegia 2017 estatistikak




Erkidegoko eskaintzen diren izenburuak



eLiburutegia eskaintza

15.190




eBiblio batezbesteko eskaintza

2.338



eLiburutegia 2017 estatistikak

Maileguak liburutegi bakoitzeko



eLiburutegia 2017 estatistikak

Maileguak 1.000 biztanleko



eLiburutegia 2017 estatistikak

 Mailegu handiena duten udalerrietako maileguak 1.000 biztanleko



eBook

eLiburutegia 2017 estatistikak



Erabiltzaile berriak hilabetez hilabete



eLiburutegia 2017 estatistikak


 eLiburutegiako erabiltzaileak



eLiburutegia 2017 estatistikak



Lizentzia kopurua



eLiburutegia 2017 estatistikak

Liburutegietako erabiltzaile diren biztanleak ehunekoetan (papera/digitala)



eLiburutegia 2017 estatistikak



12 izenburu mailegatuenak




Elkarrekin esnatzeko ordua
Kirmen Uribe

338




Arotzaren eskuak
Alberto Ladrón

330



Historia de un canalla
Julia Navarro

329



Ahaztuen mendekua
Alberto Ladrón

284



Amaren eskuak
Karmele Jaio

274



Patria
Fernando Aramburu

250



19 kamera
Jon Arretxe

255



Ez naiz ni
Karmele Jaio

250



La lengua de los secretos
Martín Abrisketa

249



Un millón de gotas
Víctor del Árbol

248



El amor se me hace bola
Bárbara Alpuente

240



El guardián invisible
Dolores Redondo

236

eLiburutegia 2017 estatistikak



12 izenburu mailegatuenak euskaraz



Elkarrekin
esnatzeko
ordua
Kirmen Uribe

338



Arotzaren
eskuak
Alberto Ladrón

330




Ahaztuen
mendekua
Alberto Ladrón

284



Amaren
eskuak
Karmele Jaio

274



19
kamera
Jon Arretxe

255



Ez
naiz ni
Karmele Jaio

250



Musika
airean
Karmele Jaio

219



110.
Street-eko
geltokia
Iñaki Zabaleta

198



Bilbao-New
York-Bilbao
Kirmen Uribe

161




Mussche
Kirmen Uribe

158



Hezurren
ondarea
Dolores Redondo

148



612
€uro
Dolores Redondo

139



Errealitateak islatzen dituzten ipuinak



programak Liburutegien Kooperaziorako
Kontseiluaren 2017ko zigilua jaso du

Errealitateak islatzen dituzten ipuinak da 2017. urtean Ermuko Udal Liburutegiak ikastetxeekin elkarlanean landu zuen programari eman zizaien izena. Ekimen honen helburua ipuin bat ezagutzera ematea da, izan dezakeen literatur kalitateaz gain, helduentzat ezerosoak edota gizartean tabu diren gaiak lantzeko ematen duen aukeragatik. Erakusketa baten bitartez burutzen da programa, eta bertan, ipuina modu aktiboan gozatzeko eta ikusi eta bizitakoari buruz mintzatzeko tarteak da.

Ekintzen ardatza Elisenda Pascual idazlearen "Clara y su sombra" (Uranito, 2016) lanean oinarritutako erakusketa izan da. Martxoaren 27tik hasi eta ikasturtea amaitu arte, Ermuko Lehen Hezkuntzako hainbat ikastetxetan izan zen. Horrela, ipuina ezagutzera eman eta irakurzaletasuna sustatu nahi da lanean agertzen diren atal ezberdinen bitartez; kasu honetan, sexu gehiegikeria ekiditea haurtzaroran.

"Clara y su sombra" lanak ipuin moduan erakusten du gaur egun hainbat eta hainbat umek bizi duten errealitate gogorra. Haurrenganako eraso sexualen gaia askotan osasunaren arloko profesionalen eta epaitegien eskuetara mugatzen da. Horren inguruan mintzatzeko ezerosoak eta zaila da gustuko ez duena ezkutatzeko ohitura duen gizarte batean. Proiektu honek gaiari ikusgarritasuna eman nahi dio, eta errespetuzkoak eta osasungarriak ez diren goerak agerian utziz, izena jartzen die amaitu daitezkeen.

Erakusketa bera hainbat osagaik osatzen dute: olana baten gainean doazen ipuinaren irudiek tamaina handian eta testurik gabe, bisita gidatua egiteko eran kokatzen direnak, Halaber, ikasleak euren itzalekin jolasteko sartu daitezkeen itzal kutxa bat, ate bat eskala errealean, ikasleek egiten dituzten paperezko tximieletak zintzilikatzeko gune bat eta Clara, ipuineko protagonista, panpina itxuran, umek utz ditzaketan mezuak sartzeko buzoi baten ondoan.

Erakusketa ipuineko ilustrazioak egin dituen Mercé Serra Valls marrazkilaria izan da. Lehenengo aldiz gure herrian muntatu du.

Gainera, Elisenda Pascualek landutako gida pedagogikoa batek osatzen du programa, Garaitzarekin (Irabazi asmorik gabeko elkarteak, EAEn Haurtzaroko Abusuak eta Tratu Txarrak tratatzeko asmoa duena) lankidetzan egokitu dena.

Erakusketa ikastetxe bakoitzera iristen denean, formakuntza saioa eskainiko zaie irakasleei, gero, modu autonomoan, ikasleengana gerturatu eta gaia landu dezaten.

Gainera, haurrenganako sexu erasoak ekiditeko ipuin, pelikula eta errekurtsuen gida bat eratu da ikastetxeetan eta liburutegian bertan banatzeko. Adin tartean arabera antolatuta daude materialak, eta EIPSan eskuragarri daude.

Programan, guztira, 4 ikastetxetako 727 ikasle eta 51 irakasle hartu zuten parte.

Programa honengatik Liburutegien Kooperaziorako Kontseiluaren (CCB delakoaren) 2017ko zigilua jaso berri du gure liburutegiak – lehenengo edizioa – liburutegi publikoen arteko kategorian. Aipatu Kontseiluak berritzaileak jo du gure herriko liburutegian landu izan den proiektua, irakurzaletasunaren eta ipuinen bidez haurtzaroran sexu abusuak bezalako gai deserosoak eta korapilatsuei heltzen diena. Aipamenak eta zigiluak ohorezko izaera dute, dirurik ez baitakartzate. Aipamen horregatik Liburutegien Kooperaziorako Kontseiluak luzaturiko diploma eta erakundearen zigilu digitala jaso ditu liburutegiak, bere irudi korporatiboan erabili ahal duena.

Sara Gago Pascual
Ermuko Udal Liburutegia



50 urte ez direlako alperrik pasatzen! Zorionak!



2018ko Otsailak 24an Legazpiko Udal Liburutegiaren urteurrena ospatu zen.

Kontu-zaharrak...

Legazpiko Udal Liburutegia udaletxeko etxabeen sortu zen 1968an. Denbora gutxian, orduko "Escuelas Luis Aldasoro" ikastetxearen lokal batean (Ikastola dagoen eraikina) haur eta gazte liburutegia ezarri zen ere.

Helduena eta haurrena batera, 1980.urtean, gaur egunean dagoen gunera etorri zen, Latxartegi auzoko Kultur Etxearen azkeneko solairura.

5 hamarkada liburuaren, irakurketaren eta kulturaren suspertzaile erreferente izan dena Legazpiko herrian. Eta urteekin ere, aldaketetara moldatzen jakin duena.

Bilduma oparoa...

34000 alez osatutako bilduma dokumental oparo eta orotarikoaren jabea da eta urteak dira liburuez gain beste formatu batzuekin osatzen joan dena: DVD-ak, CD-ak, etab.

Horietaz gain, Legazpiko Udal Liburutegia, 2004. urteaz geroztik, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen (EIPS)kide denez gero, 6.000.000 dokumentu desberdinetara sarbidea du. Eta ez hori bakarrik, Liburutegien Arteko Maileguari esker, EIPSeko edozein liburutegi publikoko ale du eskura bazkide den legazpiar orok.

10 urte beranduago ere, 2014an eLiburutegia sortzen da, liburu digitalen mailegu plataforma. Liburuak formatu digitalean irakurtzeko zerbitzu hori, urteetan gure liburutegiko erabiltzaileak eskatutako zerbitzua izan da. Gaur egun, etxetik ere on-line, 16.000 izenburu desberdin eskura daitezke, bai streaming bidez edo gailu digitaletan deskargatzeko eta irakurtzeko. Laster gainera, pelikulak deskargatzeko bidea ere abian jarriko da.

Baliabide teknologikoetan ere puntan...

Liburutegiak dituen baliabide teknologikoen hobekuntza eta modernizazioa ere etorri da, horretarako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak ahalbidetutako laguntzei esker.


Gaur egun, informatika zerbitzua da erabiltzaile asko liburutegira gertura arazten duen eskaria.

Wi-Fi sistema libreak, tabletak, eReaderrak, 5 ordenagailu finko eta 9 ordenagailu eramangarriek, posible egiten dute liburutegiko edozein txoko edo geletatik, sarean ditugun lanak eta informazioekin ihardutea.

Helburuak

Aldaketak aldaketa, bere-bereak dituen helburuei eutsi die urte guzti hauetan Legazpiko Udal Liburutegiak:

- irakurzaletasuna bultzatu,
- herriko adin eta maila desberdinetako haur eta helduen arteko harremanak biziko duen gunea izan,
- liburutegiko baliabide informatibo eta ludikoak deskubritzen lagundu,
- Bestelako trebetasunak, sormena, eta gaitasun kritikoa suspertzen lagundu hainbat aktibitateen bitartez.: idazleen bisitak, liburu gidak, ipuin kontaketa saioak, lantegiak, etab.



Liburutegia handitu egin behar izan dugu...

1997. urtean, Latxartegi auzoko liburutegia jada txiki geratu zen. Egunkariak eta prentsa irakurtzeko gela bat egokitu zen, liburutegia dagoen azken solairuak eskaintzen zituen terrazak aprobetxatuz. Eta ez hori bakarrik. Beste bi gela ere atondu ziren haurrentzat. Bata irakurketa gela, eta bestea Txiki Txokoa.

Urteekin irabazi dugun espazioari esker, legazpiarrek eskatzen zizkiguten beharrei erantzuten joan gara, erabiltzaile desberdinei beraien txoko intimoa eta aproposa eskainiz.

Azken berrikuntza 2012. urtean burutu zen. Kultur Etxeko ganbarara (liburutegiaren solairu gainekoa alegia), urteetan pintura klaseak hartzera makina bat legazpiar etorritakoa, liburutegiko mediateka gela jartzeko berenganatu genuen.

Mediatekan egokitu dugun ikus-entzunezko bilduma izango da, haurrentzako euskarazko liburuen bilduma legez, dinamikoena eta maizko maileguak dituenak Legazpiko Udal Liburutegian.

Asteburua hurbiltzen den heinean, ipuinaz edo eleberriaz gain, ezinbesteko bihurtu da legazpiar askorentzat, pelikula edo dokumentala eramatea, goxo-goxo eta elkarrekin etxeko berotasunean konpartitzeko.

Urte guzti hauetan helburu horiei jarraituz hainbat ekimen jarri dira martxan eta mantenduko dira aurrean ere: 7 ipuin kontaketa saio desberdin, 3-10 urte bitarteko haurrentzat; 3 euskal idazlerekin eta Legazpiko gazteekin literatura solasaldia beste hainbat libururen aitzakian; udako oporretarako eta gabonetarako irakurketa gomendioak jasotzen dituzten irakurketa gidan edizioa eta banaketa Legazpiko etxeetan, lantegiak, bisita gidatuak, etab.

50. urteurrena: Irakurketa klubak

2018an bete zituen Udal Liburutegiak 50 urte, eta hori ospatzeko, urteroko ekitaldiak antolatzen jarraitzeaz gain, 3 irakurketa talde jarri ziren martxan, Irakurketa Errazeko taldea, eta 2 literatura klub, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz.

Irakurketa klub guztien xedea literatura gustukoa dutenak erakartzea da, baita irakurketa bera sustatzea horrenbesteko ohitura ez dutenengan ere. Ohiturarik ez duten horiek ulermen zein irakurketa arazoak badituzte, irakurketa errazeko klubak izango zituzten aukeran.

Irakurzaileen topagune, lehen, orain eta beti

Irakurketa klubak ez dute soilik irakurketa bultzatzen, areago irakurritakoa zein lerro arteek iradokitakoa taldekideekin partekatzeko aukera ematen dute.

Talde guztiek gidariak izan zituzten eta haiek egin zituzten irakurgaien aukeraketak zein hilean behin burutu zituzten saioen gidaritza lanak ere.

Otsailean abiatu ziren klubetan parte hartu nahi duten legazpiar guztiek udal liburutegian eman ahal dute izena hara bertara joanda, telefonoz (943 73 71 86), whatsapp bitartez (639 85 11 72), liburutegira posta elektronikoko bitartez idatzita:

liburutegia@legazpi.eus
edo webgunearen bidez:
www.legazpi.eus/liburutegia

Jasone Erostarbe

Legazpiko liburutegiaren arduraduna



Non aurkituko gaituzu?

Legazpiko Kultur Etxean
aurkituko gaituzu
Latzartegi,3
20230 Legazpi.
Tel: 943737186
Whatsapp: 639851172

Eta baita sarean ere:

www.legazpi.eus/liburutegia
<http://www.legazpi.eus/>
<http://liburutegiak.blog.euskadi.eus/legazpi/liburutegia@legazpi.eus>
<http://twitter.com/LegazpikoLib>
<http://www.facebook.com/legazpikoliburutegia>
<http://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>
<http://www.eliburutegia.euskadi.eus>

Liburutegi proaktiboa



Leihoak ireki, bideak markatu, bidaian lagundu: erreza denzerbait baina aldi berean konplexua.

Badira urte batzuk liburutegiok sare sozialetan sartu ginela, Facebook, Twitter edo Instagramen presentzia dugula. Horrek aukera eman zigun ordenagailu, tablet eta telefono mugikorren pantailetan azaltzeko, birtualki erabiltzaileengandik gertuago egoteko; modernizatu egin ginen!

Mundu digitalerako jauzi hori mostradore eta apal artean prestatu genuen; baliabideak baloratu genituen, erabaki genuen zer egin eta zer ez; proiektuak lotzen joan ginen; liburutegiak komunitatean izan behar zuen bisibilizazioa eta egokitasuna aztertzen...

Bitartean, eguneroko lanarekin jarraitu genuen, liburutegiaren presentziari eman nahian garrantzia Erretereriako Madalen kaleko kokalekutik haratago. Javier Arbuluk aipatu zigun giza sismografo gisa zuen gaitasuna. Nik gehituko nuke liburuzainak ere bikain jarduten direla, hemendik pixka bat eta handik beste pixka bat eta... zas! osagaien nahasketa horretatik ateratzen diren "konbinatuek" aukera ematen digute komunitatea egiteko, interkonektatuta, teknologia berriak hurbilduta... Hirugarren Espaziorantz ote goaz?

Hau izan zen gure imaginarioa, kafea, pastak eta liburuak **konbinatuta**. Ze konbinazio goxoa! Javier Aramendia gozogilea gurekin harremanetan jarri zen eta proposamena egin zigun. 2013az gerostik, bere kafetegi-gozotegian, kafeaz gain, liburuak eskaintzen dira. Hilero 20 liburu aukeratzen ditugu liburutegian eta etxeko mailegu gisa uzten dizkiogu. Nagusiki, haurrentzako liburuak izaten dira, hainbat gairi buruzkoak: hitzekin jolasean (poesiak, asmakizunak...), eguneroko ohitura onak, sukaldaritza, hobetzea, beldurra, coachinga. Horrela, gaiak berrasmatu eta eskaintza zabaltzen dugu, liburutegirako leiho bat zabalduko dugu?

Web-orria eta mundu analogikoa **konbinatu** ditugu, Bookcrossingaren munduan sartu gara. Informazioa lainoan dago; liburuak, kalean. 2011n hasi ziren Erretereriako Gureakeko mintegi tutelatuak bisitan etorri

eta bideo-ekoizpenean lehen urratsak ematen; ez zuten irakurtzen, baina informazioa hedatzeko lanak egiten zituzten. Zer nolako lankidetzak izan zitezkeen? non erakutsi zitzaizkaten beren gaitasunak?

Esperimentatzea ikastea da, horregatik uzten ditugu maileguan liburu digitalak; teknologia berriak hurbiltzen ditugu, aurreiritziak desegiten, aukerak eskaintzen



(Literatura-solasaldia, eta ez dago papereko libururik erabilgarri)

- Kaixo guztioi, hurrengo liburua euskarri digitalean irakurriko dugu.

- Ez, mesedez, ni tramankulu horiekin ez naiz moldatzen.

- Zein da arazoa?

- Ez zait gustatzen / ez dakit erabiltzen...

- Lasai, hurrengo saioan ordu erdi lehenago elkartuko gara. Azalduko dizuegu nola erabili, liburuak aurrez kargatuta egongo dira-eta. (Edozein zalantza WhatsApp bidez, telefonoz edo aurrez aurre argitu daiteke).

(Handik hilabetera, solasaldiaren egunean)

- Zer moduz joan da irakurketa?

- Beno, ez dago gaizki; ez da hain zaila izan...

- Hurrengo liburua paperean utziko dizuegu.

- Eskerrak!

(Liburuak banatu dituzte)

- Letra oso txikia da.

(Astean zehar bertsio digitala hainbatetan hartu da maileguan)

Bookcrossinga aipatu genien, eta animatu ziren. 5 kolaboratzaile etortzen ziren egunero liburutegira, liburuak etiketatzen zituzten, eta amaitutakoan beraiek uzten zituzten Erretereriako kaleetan; Youtubean ikusgai dagoen bideo batean bildu zuten prozesua. Bitxikeria gisa, lehen liburu haietako bat Argentinan azaldu zen; beste batzuk gertuago, Bartzelona, Zaragoza edo Donostian, adibidez. Orain gure liburutegiak herriko hiru puntu elikatzen ditu: udaletxea, Bizarain Ikastola eta liburutegia bera. 7 urte igaro dira, eta hainbat istorio geratu dira; azkena, udal-merkatuan, aurtengo Gabonetan. Liburutegian xahuketa eginda eta hainbat donaziotatik jasota, 100 errezeta-liburu inguru jaso eta abenduko lehen astean merkatuaren sarreran utzi ziren. Programatuta zegoen 3 egunetan agortzea, baina egun bakarrean harrapatu zituzten liburu guztiak. Merkatariek agian ez zuten sumatuko erosketa-saskia liburu horien ondorioz aldatu ote zen, baina agian norbaitek aterako zituen Gabon gauerako menurako ideiak.

Langileak **konbinatzen** ditugu eta espazioak partekatu. 2016an lankidetzak-hitzarmen bat sinatu genuen Bizarain ikastolarekin. Ikastola hori Beraunen dago, Erretereriako goiko auzoetako batean, eta auzoan egoki kokatuta dago eta sarrera berezidun liburutegia du. Gure apustua zen zerbitzua deszentralizatua izatea; ikastolak bazituen espazioa eta gogoia, baina baliabide gutxi, bere hezkuntza-komunitateari eta auzoari zerbitzu emateko.

Horrela, liburutegia hiru ordu eta erdi egoten da zabalik eta ikastetxeko irakasle bat eta udal-liburutegiko langileak koordinatzen dira auzoari liburutegian arreta eskaintzeko 16:30etik 20:00etara; udan goizez dago zabalik. Irakurketa-taldeak antolatzen dira txikiak; ipuin-kontalariak, ertainak; erakusketak eta mailegua, helduentzat. Bikoiztuta zeuden gaur egungo funtsak eraman dira, adin guztietarako. Udal-liburutegiari erreserbak eta eskaerak egin eta jasotzeko puntu gisa ere funtzionatzen du.

Egokitzea eta ulertzea komunikazioa berehalakoa dela, horretarako eta gehiagotarako aukera ematen digu WhatsApppek. Bi norabidetako komunikazioa



- Arratsalde on.
- Liburu bat erreserbatu nuen eta oraindik ez didazue abisatu.
- (datuak eta abisuak egiaztatzen...) SMS bat bidali / telefono finkora deitu genizun halako egunetan.
- Bai, baina telefono finkoa ez dut erabiltzen / SMSa ez dut jaso.
- Agian izango duzu WhatsApp?
- Bai, noski!
- Orduan, WhatsApp bidez komunikatzen bagara?

Azken berritasuna izan da "itzulketen buzoia" jartzea. Biblioteka Bizarain Ikastola udal-liburutegiaren sukurtsal bihurtu da; beste ikastetxe batzuk animatuko ote dira?

Beti ez dugu **konbinatzen**, edo bai, esan dezakegu talde eta pertsonen arteko interrelazioa dela. Irakurketa errazarekin hasi ginenetik liburutegian eta liburutegitik, herrian talde-sare bat sortu dugu. Garagune, Jesusen Bihotza adinduen egoitza, eguneko zentroak, erretiratuak etxeak, ikastetxeak, bakoitza bere kasuistikarekin eta bere martxan, baina helburu berarekin: irakurketak partekatzea. Eta batzen baditugu?

Irakurgai bera, hainbat talde eta eguna jarri. lazko martxoan, Garagunek eta Jesusen Bihotzak iritziak eta emozioak partekatu eta trukatu zituzten, pertsonaiez hitz egin zuten eta, batez ere, esperientziak gozatu zuten. Gustura aritu ziren, oso gustura. Emaitza izan zen errepikatzeko irrikaz geratu zirela.

Leihoak zabaltzea, ibilbidea markatzea, bidelagun izatea; erraza eta zaila aldi berean. Oraindik bidea dugu egiteko, baina gai izango gara.

Mari Jose Pascual
Errenteriako Liburutegiko zuzendaria

Akabo txartela etxean ahaztea edo galtzea, akabo txartelaren kopia ateratzea edo berritzea. Guztiontzat abantaila bikaina, baita ingurumenarentzat ere!



- Egun on.
- Maileguan hartzeko (liburu pare bat eta DVD bat utzi ditu mahai gainean)
- Txartela, mesedez.
- Momentu bat (liburuak eta DVDaren gainean utzi ditu diru-zorroko txartel guztiak, baina liburutegikoa ez da ageri). Etxean utzi dut edo galdu egin dut. (Txartelak banan-banan bildu ditu, liburutegikoa besteren baten bati itsatsita ez dagoela ziurtatzeko).
- Telefono mugikorra gainean daramazu?
- Bai, noski.
- Ez kezkatu, orduan; mugikorra gainean badaramazu, txartela ere bai!
- Primeran!



Sarea zifratan



Altan emandako izenburuak hirukoiztu egin dira

2017an 95.384 izenbururi eman zaie alta, aurreko urtean eman ziren 32.712 izenburuen zifra ia hirukoiztea lortu delarik. Datu hori deigarriena izango litzateke Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) zifrei dagokionez.

Era berean, iaz alta emandako ale kopurua 261.270 izan dira, eta aurreko urteko zifra (243.981) ia 15.000 aleetan gaitzitea lortu da.

Horrela, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen duten aleen kopurua guztira 6.055.284 da, 2016. urteko datua 246.961 aleetan gaitzitu delarik.

Orohar, urterik urte aztertzen diren adierazle guztiek gorakada izan dute, alta emandako erabiltzaileen datuek izan ezik. Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareak 2016. urtean 43.021 irakurle berri izan bazituen, 2017an 39.478 erabiltzaile berri egin dira sareko kide.



Hala ere, azpimarratzekoa da egun erabiltzaile kopuru osoa milioi batera hurbiltzen dela, 940.518 hain zuzen ere. Horrek suposatzen du Euskadiko biztanleriaren ia erdiak sareko liburutegietako txartela duela (%42, 86).

OPACean egindako bilaketek ere gora egin dute nabarmen. 2016. urtean ia bi milioitara heltzen baziren (1.949.405), 2017an 2.866.521 izatera pasatu ziren (ia 900.000 bilaketa gehiago).

Mailegu kopuruari dagokionez, igoera ere nahiko garrantzikoa izan da. Aurreko ekitaldian 2.180.000 mailegu egin ziren eta 2017koan, berriz, 2.606.886.


Liburutegien arteko maileguan, bere aldetik, 2.500 garraiatze gehiago egin dira, goranzko joera mantentzen delarik. Orotara, 86.769 garraio egin dira 2017an EIPSeko liburutegien artean.

IZENBURUEN KATALOGOA




Guztira
6.055.284

MAILEGUAK




SAREKO MAILEGUAK




940.518
ERABILTZAILAK



ERABILTZAILA KOPURUAREN BILAKAERA



BAZKIDE BERRIAK



Mailegatuenak...

■ ...irakurrienak (helduak)

Todo esto
te daré
Dolores Redondo




3.663

El silencio de
la ciudad blanca
Eva Gª Sáenz



3.016


Patria
Fernando Aramburu



2.773

■ ...ikusienak (helduak)

Tarde para
la ira
Raúl Arévalo



546

Julieta
Pedro Almodóvar



521


Que Dios
nos perdone
Rodrigo Sorogoyen



245


■ ...entzunenak (helduak)

Lo niego
todo
Joaquín Sabina




45

Lo mejor de
Amancio Prada



35

The platinum
Collection
Queen



34

■ ...irakurrienak (haurrak)

Naruto
Masashi Kishimoto



1.824

Vieja
escuela
Jeff Kinney



1.100

Juega y
aprende
con Mickey



1.087

■ ...ikusienak (haurrak)

Érase una vez
el cuerpo
humano



624

Hello Kitty
y sus amigos



354


Los
minions



322

■ ...entzunenak (haurrak)

Alvin y las
Ardillas



17

Peppa 2ª
temporada



14

Cuentos
animalantes



13

■ ...irakurrienak (helduak)

**Elkarrekin
esnatzako
ordua**




858

**Nola heldu
naiz ni honario**
Kattalin Miner



720

**33
ezkil**
Miren Gorrotxategi



703


■ ...irakurrienak (haurrak)

**Monstruo
arrosa**
Olga de Dios



659

**Nur eta
banpiroen
dantza**



602

**Hauxe
besterik ez
nuen bahar**



550

■ ...ikusienak (helduak)

Amama
Asier Altuna



59

**Itzarren
arguia**
Mikel Rueda



57

Loreak
Garaño-Goenaga



51


■ ...ikusienak (haurrak)

**Triki, traka
Tron**
Txirri, Mirri, eta...




2.700

**Sentitu
pensatu, ekin!**
Pirritx, Porrotx, eta...



874

Amalur
Pirritx, Porrotx, eta...



994

■ ...entzunenak (helduak)

**Aske maitte,
aske bizi**
Gatibu




94

**Euritan
dantzan**
Gatibu



76


**Guria
ostatua**
Ruper Ordorika



68

■ ...entzunenak (haurrak)

**Tipo-tapa
korrika**
Pirritx, Porrotx eta...



291

Amalur
Pirritx, Porrotx, eta...



202

**Ongi etorri
basakabira!**
Go!azen



163

Bi hitzetan



■ Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea handituz doa

Arabako Foru Aldundiko teknikariek elkarlana hasi da, Santurtziko liburutegiek Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko (EIPS) online katalogoa osatu ondoren. Horrela, EIPSeko katalogoa osatuko duten hurrengoak, Arabako Foru Aldundiko katalogo bibliografikoa, beren museoetako eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailera atxikita dauden zerbitzuetako izango dira.

Euskadiko Liburutegien legean jasotzen den bezala, Estatuaren edo foru-aldundien liburutegiak eta liburutegi pribatuak ere beren borondatez, eta hitzarmen bidez, sartu ahal izango dira Euskadiko Liburutegi Sistemari edo Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareari.

Horren ondorioz, izapidetzen hasi da jada lankidetzaren eta funtzionamenduko hitzarmena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako Foru Aldundiaren artean. Horren bidez, Ignacio Aldecoa Kultur Etxea, museoetako liburutegiak eta Euskara, Kultura eta Kirol Sailera atxikitako zerbitzuak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareari integratuko dira.

Berri ona da zalantzarik gabe; izan ere, EIPSeko liburutegietatik herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuen eskaintza sendotzen delako eta txartel bakarraren bidez zerbitzu horietara sartzeko aukera modu errazean eskaintzen delako.



■ eLiburutegiak mailegu digitalaren eskaintza areagotu

eLiburutegiako lantaldeak ia 2.000 filmaren hautaketa egin du. Laster, horiek guztiak eLiburutegiaren plataformaren bidez ikusteko aukera izango da.

Funtzionalitate eta xehetasun batzuetan azken ukitua ematen ari dira formatu berri horren mailegu digitala prest izateko.

■ Liburutegi berria Arratzun

Arratzuko Udalak dinamizazio soziokulturalaren aldeko apustua egin du bere herritarren eskura udal liburutegia jarri. Zerbitzu berri horri esker, irakurzaile amorratuak ez dute beharrik izango inguruko herrietara joateko.

Liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen barnean dago, eta horren bidez, bertako auzotarrek, Internet bidez liburuak deskargatzeko eta mailegatzeko aukera izango dute etxetik atera gabe. Laster, filmak ere deskargatzeko aukera prest izango da.

© 2018

Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak
argitaratua

Posta elektronikoa
liburutegi-zerbitzua@euskadi.eus

LG: SS 1509-2005

